

COVID-19aren eragina haur eta nerabeen eskubideetan


Arartekoaren Haur eta Nerabeen Kontseilua, 2021.

ENYA 2021en aurrekariak

Aholkulari Gazteen Europako Sarea (ENYA) Haurren Defentsa-erakundearen Europako Sarearen (ENOC) zati integrala izan da 2009az geroztik. Haurrek parte hartzeko proiektu horren helburua da ENOC sare osoko hainbat gazteren (13 eta 17 urte bitartekoen) ideiak eta esperientziak biltzea eta ENOCen urteko lanean haiei ahots bereizgarria ematea. ENYA 2021 proiektua Maltako Haurrentzako Ordezkaritzaren Bulegoak koordinatzen du.

ENYAren helburu nagusia haurrak eta gazteak ENOCek egiten duen lanaren abangoardian jartzea da, haurrek ahalik eta parte-hartze handiena izatea bermatuz. Gazte aholkularien gomendioak ENOCen adierazpenaren parte izango dira. Adierazpen hori hurrengo urteko (2021eko udazkena) Batzar Orokorrak hartuko du. Haurren defendatzaileen eremu-esperientzian eta ENYako gazteekin aurreikusitako kontsultan oinarrituta, ENOCen asmoa da ebidentzian oinarritutako gomendioak eskumena duten agintari nazional eta nazioz gaindikoei (europarrei eta nazioartekoei) zuzentzea. Emaitza gisa, ENOCek **“COVID-19: etorkizunerako ikaskuntza”** urteko gaiari buruzko politika-adierazpena egitea espero da.


ENYA 2021en ENOCeko kide diren 15 herrialdeetako gazteek parte hartu ahal izango dute (EBko 12 kide eta EBtik kanpoko 3 kide). Interes handiagoa izanez gero, bidezko banaketa geografikoa hartuko da kontuan eta lehentasuna emango zaie etorri berriei.



ENYA 2021

COVID-19ak erronka asko ekarri dizkigu guztioi, baita haurrei ere, bereziki egoera ahulean bizi direnei eta zerbitzuetara jo ezin dutenei. 2021ean, ENOCek estatuek COVID-19ari emandako erantzunak Europako haurren eskubideetan izan duten eragina ebaluatuko du. 2020an Haurren Eskubideen Eraginaren Ebaluazioaren (CRIA) arloan osatu zena oinarri hartuta, ENOCek, bere kideen bitartez, COVID-19aren legediak, praktikak eta larrialdi-neurriak haurren giza eskubideei eta ongizateari nola eragin dieten eta etorkizunean antzeko erronka bati eraginkortasunez erantzuteko prestakuntza eta gaitasun hobea bermatzeko ikasitako ikasgaiak zein diren ikusiko du.

Haurrek oso gutxi edo batere ez zuten parte hartu **eta oraindik ere oso gutxi edo batere ez dute parte hartzen COVID-19arekin zerikusia duten politikei eta erabakiei buruzko eztabaidetan**; eta, aldiz, beren bizitzako alderdi guztiei sakonki eragiten die pandemiak. ENOCen planifikatutako helburu eta jardueren alderdi oso garrantzitsu bat da ENOCen kidegoaren barruko eremu geografiko desberdinetako haur eta gazteen iritziak eta esperientziak ENOC 2021en lehentasunezko gaiari heltzean bilatzen eta kontuan hartzen direla ziurtatzea. Beraz, ENYA 2021erako lehentasunezko gaia izango da COVID-19ak eta gobernuek dituzten erantzunak haurren eskubideetan duten etengabeko eragina ebaluatzea, arreta berezia jarriz hezkuntzan, osasunean (burukoan zein fisikoan), haurren pobrezian, indarkerian eta abusuan (gaien zerrenda ez da zehatza eta parte hartzen duten herrialdeek zabaldu egin dezakete).



ENYA 2021 proiektuaren bidez, parte hartzen duten gazteak Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan trebatuko dira, COVID-19ak eta beren herrialdeek hartutako neurriek beren eskubideetan, bizitzetan eta ongizatean duten eragina ebaluatzeko. Ekimen horren bidez, gazteek erabakiko dute **zer egin behar den haurren eskubideei**, aurrekontuen murrizketen eta larrialdiko beste neurri batzuen ondorioz, modu negatiboan **eragiten ez zaiela bermatzeko**.



Testuingurua

Koronabirusak (COVID-19ak) haurren, nerabeen eta haien familien bizitza aldatu du mundu osoan. Pandemia hori osasun-krisia nahiz mehatxu sozial eta ekonomikoa da; eta erronka handiko egoerak sortzen ditu, bereziki ahulentzat.

Haurrengan eta haien familiengan inpaktua suntsitzailea izaten ari da; gaixotasunak, isolamendua, beldurra eta bizi-baliabideen galera direla eta.

Gure erkidegoko osasun- edo komunitate-garapeneko arazoak gertutik aztertzen hasten garenean, informazio zehatza behar dugu pertsonen (kasu honetan, haurren, gazteen eta familien) eta haien erakunde eratzailen premiei buruz; bai eta pertsonen (haurren) eskubideei buruz dituzten ikuspuntuei buruz ere.

Gure ustez, behar dugun informazioa lortzeko modurik onena **BEHARRAK IDENTIFIKATZEKO ETA EKINTZA-NEURRIAK SUSTATZEKO PLANA GARATZEA** da.

Beharrak honela defini daitezke: egungo egoera nolakoa den eta egoera horrek izan beharko lukeen moduaren arteko arrakala. Behar bat gizabanako, talde edo komunitate oso batek senti dezake.






prozesu bat eraiki dugu...

- **Konfinamenduak** haurren, gazteengan eta familiengan dituen **eraginak** identifikatzea, gomendioak zehaztu ahal izateko.
- Egoera horrekin benetako eragina izaten ari diren pertsonen onurarako, harremanen mailan, emozioen mailan, maila fisikoan... Gomendio-plan bat ezarri aurretik, zentzuzkoa da pertsonen **beharrak** eta desberdintasunak **ebaluatzea**.
- Beren beharrei irtenbidea aurkitzeko baliabideak dituztenekin beren beharrak zein diren eztabaidatu ahal izateko guneak partekatzea.

...helburu hauekin

- COVIDak eragina izan zuen eskubide bakoitzaren **egungo egoera ulertzea**.
- **Benetako** beharrak eta **desberdintasunak** identifikatzea, gomendioak egiteko.
- Haurren eskubideen ikuspegitik antzeko egoeretarako **gomendio gisa** balioko duten neurriak hobetzeko lehentasunei buruzko **erabakiak hartzea**.

Prozesua



Ongietorria topaketara


Goikuria Aterpetxea aterpetxeko ongietorriarekin hasi zen jardunaldia. Askorentzat berriro elkartzeko unea, eta elkar ezagutzeko unea beste batzuentzat. Taldea 12 parte-hartzaile beteranok eta 8 kide berrik osatzen dute.

Asteburuan parte hartuko zuten pertsonen xehetasun gehiago ezagutzen minutu batzuk eman genituen; eta, horretarako, dinamika ludikoak erabili genituen.

Kontseiluaren eginkizuna eta Arartekoak erakunde gisa duen funtzioa gogorarazteko saioa ere egon zen.

Aurreko kontseiluetan egon ziren hurrek aholkulari gisa izandako esperientzia kontatu ahal izan zieten kide berriei.





COVID mapa emozionala

Kontseilukook lanean hasi ginen **mapa emozional** bat eraikiz, bertatik bertara ezagutu ahal izateko nola sentitu ziren haurrak COVID-19aren pandemiaren etapa desberdinetan (konfinamendua, eskolara itzultzea eta COVID ondorengo garaia), emozio horietatik eragin handiena izan zuten haurren eskubideak zein izan ziren identifikatu ahal izateko.

Kontakizun bat sortzen hasi ginen; eta horretarako, prentsako titular errealak erabili genituen: ikusi nahi genuen ea helduok pandemia osoan haiei buruz esan duguna haien pertzepzioari eta emozioari dagokion.

Albisteak aztertu ondoren, garrantzitsua zen fase bakoitzean sentitu ziren moduarekin konektatzea, eta emozio horiek mapa batean iraultzea: bizi izandako emozio negatiboak, bai eta emozio positibo guztiak ere. Eraitza horri esker, **gure adingabeek bizi izandako ongizate-egoeraren eta zailtasunen** irakurketa orokorra egin ahal izan genuen.

Mapa hori da pandemia osoan eragin handiena izan duten eskubideak zein izan diren identifikatzeko analisi-oinarria, ez helduok egiten dugun irakurketatik, baizik eta beren eguneroko errealitatetik.

Kontseiluak eskubide hauek aukeratu ditu: **hezkuntzarako** eskubidea, **osasunerako** eskubidea eta **aisialdirako** eskubidea.



konfinamendua

eskolara itzultzea

“COVID ondorengo garaia”

Asperdura
 Bakardadea
 Monotonia
 Antsietatea
 Tratu txarrak
 0 gogo
 Konexioa/deskonexioa
 Hipersentikortasuna
 Nortasun oldarkorra
 Nagikeria
 Errutina: jan/lo egin
 15 egun gehiago


Denboraren balorazioa
 Memeak
 Konpainia beharra
 Atsedena
 Askatasuna
 Nekea
 Arnasa
 Poza
 Inspirazioa
 Umorea
 Lasaitasuna
 HBO/NETFLIX

Beldurra
 Maskara
 Zartakoa
 Murrizketak
 Ezintasuna
 Errua
 Akidura
 Antsietatea
 Estutasuna
 Errepresioa
 Kontrola
 Ezjakintasuna
 Beldurra
 Arauak
 Familiako zaintzarik gabeko
 haurrak

Adiskidetasuna
 Ikastea
 Erantzukizuna
 Berriro elkartzea

Aurpegiko konplexua
 “Simon said”
 Ihes egiteko beharra
 Segurtasun falta
 Neurrigabekeria
 Segurtasun falta
 Nekea
 Etengabeko kiribila
 Eta orain zer?
 Estresa
 Presioa

Aldaketetara ohitzen
 ikastea
 Askatasuna
 Uda hasiera?
 Aurrerapena
 Batasuna
 Presioa
 Noizko hurrengo parranda?
 Atsedena



Eskubideak eta eraginak

Eskubideak hautatuta, azterketa zehatzagoa egin ahal izan dugu haiek hauteman zituzten benetako eraginei buruz eta islatzen ziren egunerokotasuneko alderdien inguruan.

Eskubide bakoitzarekin lan bat egin dute, eta bertan **lehen pertsona bizi zituzten eta COVID-19aren pandemiaren ondorio direla uste duten** alderdiak azaltzen aritu dira.

Identifikatu ondoren, kartoizko suziri batzuetan oinarritutako metafora bat erabili dugu: suziria eskubidea da eta aurrealdean du sartzeko atea; eta albokoak dira eraginak jasan dituztenak. Eragin bakoitza kartoiaren gainean material desberdinekin irudikatu behar izan dute.

Emaitza hiru eskubide dira (eta haiek eskura ditzakete eta haietarako eskubidea dute); eskubide horiek beren "hormetan" eraginak jasan dituzte egunerokoan.

Eraikuntzak eta irudikapenak aztertu ondoren, eskubide bakoitzean hiru eragin garrantzitsuenak zein diren hausnartu dute. Ez gara soilik eragin zehatzez ari, baizik eta **zenbait alderdi sortu ahal izan dituzten eraginez, hauren arteko desberdintasunen sorburu izan direnak.**

Eragin horiek suziriaren alboetan jarri ditugu, bistan izateko eskubidearen inguruan horiek egon direla pandemia honetan.



hezkuntzarako eskubidea

COVID-19ak hezkuntzaren arloan hurrengan izan dituen eragin handienak hiru esparru eta alderdi esanguratsutan islatzen dira:

- **MATERIALAK:** Adingabe askok zailtasuna izan dute baliabideak, ordenagailuak, liburuak eta abar eskuratzeko.
- **METODOLOGIA:** Gelen errealitatera egokitzeko konplexutasuna, laguntzarik ez izateagatik, ikasteko teknikengatik...
- **KOMUNIKAZIO EZ-ERAGINKORRA:** Adingabe askok nolabaiteko deshumanizazioa, bakardadea... sentitu dute.



hezkuntzarako eskubidea

“Pandemia garaian, hezkuntzan eragina izan zen; hasteko, ikasteko metodologia aldatu zen (aurrez aurreko hezkuntzatik online hezkuntzara). Ikasleok ordura arte erabili ez genituen tresna eta aplikazioak behar izan eta erabili ditugu; besteak beste, Classroom Meet eta ordenagailuak. Ondorioz, etengabeko konexioan egon gara; eta horrek pantailen gehiegizko erabilera ekarri du.

Hori dela eta, metodologian eragina izan da: ikastetxe batzuetan online egin dira azterketak; eta beste batzuetan, berriz, ez dira egin. Lanak eta proiektuak izan dira ikasleak ebaluatzeko erabilitako tresnak. Eta horien ugaritasunak irakaspen praktikoagoa ekarri du, baina nekezagoa. Ikaslearen arabera, egoera horrek mesede egin du edo konplikatuagoa izan da. Notek, oro har, eragin positiboa izan dute.

Prozesuan zehar, hainbat arazo aurkitu ditugu. Alde batetik, zailtasuna izan dugu laguntza aurkitzeko, komunikazio falta dela eta; eta horrek, aldi berean, ikasleen eta irakasleen deshumanizazioa ekarri du, aurrez aurre komunikatzerik izan ez dutelako eta beti pantaila baten aurrean egon direlako. Horrek ulermen eta enpatia falta eragin du, eta independenteagoak izatera behartu gaitu. Horrez gain, aparteko laguntza gehiago behar zuten ikasleak bakarrik sentitu dira, eta horrek ezberdintasuna sortu du. Ikasteko erraztasuna zuten ikasleek pribilegioak zituzten besteen aldean. Eta ez hori bakarrik: familien arteko ezberdintasun ekonomikoa asko nabaritu da. Batzuk material falta izan dute; esaterako, liburuak/ordenagailuak. Paradoxikoki, anabasa eta neurrigabekeria honetan guztian, antolatua izatea eskatu zaigu.

Ondorioz, gure osasunean eragina izan du: alde batetik, osasun fisikoan (ikusmena, forma fisikoa...); eta, bestetik, buruko osasunean (antsietate-arazoak, estresa, bakardade-sentsazioa, galduta sentitzea, estutasuna...).

Horren guztiaren ondoren, mailaz maila itzuli gara klasera, baina bat-batean eta modu zakarrean. Antolaketa falta eta anabasa argia izan da. Beraz, ikastetxe bakoitzak ikasturtearen bere planteamendua inprobisatu egin du. Eta aurrez aurreko eta online ikasketen arteko aldeak ikasturtearen hasiera markatu du. Berrogeialdian mailak behera egin zuenez, itzuleran exijentzia desberdina izateak desorientatu egin gaitu eta berriz ere galduta sentitu gara pandemian gaizki landutako hainbeste ikasgairen artean.

Itzuleran etengabe aldatzen ziren neurri eta arau berriak bete behar izan ditugu. Burbuila gelak, distantziak gelan, baina kalean ez?”



osasunerako eskubidea

COVID-19ak osasunaren arloan adingabeengan izan dituen eragin handienak hiru esparru eta alderdi esanguratsutan islatzen dira:

- **KOLAPSOA OSASUN ARLOAN ETA KOLAPSO OROKORRA:** Egoera ustekabean etorri izanak eta ezagutzarik ezak anabasa eta kaosa eragin dute, eta horrek pertsonak oro har (eta haurrak bereziki) ez artatzea ekarri du.
- **OSASUN FISIKOAREN NARRIADURA:** Jarduera fisiko bat aire zabalean egiteko ezintasunak eta etxeek eskaintzen dituzten aukerek adingabeen forma fisikoan eta ohitura osasungarrietan eragin dute.
- **BURUKO OSASUNA:** Koordinatu guztietatik (hezkuntza, familia, gizartea...) konfinamenduko bizimodu berriak eragina izan du egoera emozionalean eta, berez, buruko osasunean.



osasunerako eskubidea

“Pandemiak denok harrapatu gaitu, eta esparru guztietan, ezustean. Hasieran, herritar eta gobernu guztien aldetik ardura eta seriotasun falta zegoen. Inork honaino iristea espero ez zuenez, kolapsora iritsi ginen, kaos eta anabazaz bete. Konturatu ginen ez genuela birusari buruzko ezagutzarik; eta, beraz, ezin izan genion behar bezala aurre egin eta ez genuen baliabiderik izan.

Horren ondorioz, osasun arloan kolapsoa egon zen eta pertsonak alde batera utzi ziren. Herritarrek tratatuak izateko eskubidea galdu zuten, eta koronabirusa ez ziren gaixotasunei argi fokua kendu zitzaien. Gainkarga zela-eta kolapsoa gertatu zen, osasun-langileek esplotazio masiboa jasan zuten eta karga guztia jasan zuten.

Antolakuntza eta baliabide faltaren ondorioz, gizartean hainbat sentimendu sortu ziren, hala nola beldurra eta mesfidantza; eta pandemia osoan iraun dute. Horrek ekarri du gure buruko osasuna okertzea.

Nerabe gisa, buruko osasuna ahaztu egin zitzaigun; garrantzitsu izateari utzi zion. Gainera, guztiaren errua egotzi ziguten, norbaiti errua egotzi beharra zeukatelako. Ahaztuak izateaz gain, nabarmen isolatuta gelditu ginen; guri arreta eskaintzeaz ahaztu ziren; eta, gainera, azken lehentasun gisa utzi gintuzten. Ez ziguten kasurik egiten; eta, gainera, alde batera utzi gintuzten; ez gintuzten entzun. Ulermen eta arreta falta sentitu dugu.

Ados gaude gai eta talde garrantzitsuagoak zeudela, baina horregatik ez zitzaigun garrantzi guztia kendu behar. Denak du bere garrantzia eta arreta eskaintzeko beharra.

Baztertuta sentitu arren, ekintza solidario, segurtasun-neurri eta murrizketa guztietan parte hartzen jarraitu dugu; eta inoiz ez gara izan gurekin izan diren bezain axolagabeak. Gainera, ezin zaigu errurik egotzi talde bezala; dena ez da zuria edo beltza; beti daude polaritateak, eta errespetatzen duten gazteak eta ez dutenak; beti infantilizatu eta deabrutu gaituzte, gu ere biktima izan garenean.

Xantaia egin digutela sentitu dugu; adibidez, komunitateak ixteko mehatxua egin digute “kale-zurrutean ibiltzeari uzten ez bagenion”. Zigortu egiten gaituzte... Zergatik? Gazte izateagatik eta nerabe izan nahi izateagatik? Ez dute ahaztu behar guk ere pandemiaren eragina eta beldurra sentitu dugula. Ez gintuzten horretatik babestu. Ez gara haurrak, baina ezta helduak ere.

Kale-zurrutean ibiltzea bezalako zenbait jarduera egiteari uzteko erantzukizun sanitarioa ulertzen dugu. Gure dibertimendu bakarra alkohola izango balitz bezala. Babesteko erantzukizuna eta babestuak izateko eskubidea ulertzen ditugu”.



aisialdirako eta elkartzeko eskubidea

COVID-19ak aisialdiaren arloan adingabeengan izan dituen eragin handienak hiru esparru eta alderdi esanguratsutan islatzen dira:

- **SOZIALIZAZIOA:** Aisialdi faltak eragin zuzena izan du adingabeen garapenerako premia psikosozial garrantzitsuenetako batean: berdinen arteko sozializazioan.
- **KULTURA- ETA KIROL-EKITALDIAK:** Kultura- eta kirol-jarduerak egin ezin izanak murriztu egin du erabakitze eskubidea, eta, beraz, baita beren interes eta beharretara egokitutako aisialdia izateko eskubidea ere.



aisialdirako eta elkartzeko eskubidea

“Konfinamenduak gauza ezberdinetara bideratu gaitu.

Lehenik eta behin, asperdurara. “Denbora libre” asko izan arren, ez genuen ezer egiteko gogorik; normalean egiten genituen gauzak egiteko ilusioa galdu genuen. Baina, aldi berean, hobby berriak sortu ziren.

Horrek robotak edo probako animaliak sentitzearen sentimendua piztu zigun.

Zer esanik ez, askotan, ikasleek gelan baino lan gehiago egiten zituzten etxean. Horrek estresa, antsietatea, bakardade-sentimendua, estutasuna eta tristura ekarri zizkigun.

Itotzen gintuzten sentimendu horiek distraitzeko, kazetari ospetsuak, “Tik-tok” eta abar zeuden. Eta normaltasun berri bat eraiki genuen etxe barruan.

Ezinezkoa zela iruditu arren, egun batean irteten utzi ziguten, baina... mugatuta. Hor hasi ginen “etxeratze-agindua”, “itxiera perimetrala”... hitzak ulertzen. Eta zer ziren distantziak eta zer garrantzitsua den kontaktu fisikoa.

“Askatasuna” izanda ere, ahaztu egiten zaigu jendeak ondorioak izaten jarraitzen duela edo arazo psikologiko horiek guztiak bizitzen jarraitzen duela; eta ez zaigu beharrezko arreta eta laguntza ematen.

Laburbilduz, aisialdirako eta elkartzeko eskubidea eraitsia izan da. Eta ondorio onak egon arren, gehienak txarrak izan dira”.



garapen pertsonalerako eskubidea

Hasiera-hasieratik, eta zeharka egun osoan zehar, Kontseiluko haurrek garapen pertsonalerako eskubidea COVID-19aren ondorioak jasan zituen eskubidetzat hartu zuten.

Oraingoan, haurrek ez zuten arreta jarri erakundeek eta politikek kontuan hartu beharreko gomendioetan, baizik eta beren garapen pertsonala lortzeko beren esku zeuden alderdietan. Metaforikoki, gai horiek planetetan kokatu ziren; gomendioez gain, suziriak helburu dituzten konstelazioetan.

Honako hauek identifikatu zituzten:

BORONDATEA	BESTEEI LAGUNTZEA ETA BESTEAK BESTEAK ERRESPETATZEA
BAIKORTASUNA	TOLERANTEA IZATEA
IRUDIMENA	ADIMEN IREKIA IZATEA
PENTSAMENDU KRITIKOA	GURE ESKUBIDEAK ALDARRIKATZEA ETA HORIEN ALDE BORROKATZEA
IRAUNKORTASUNA	ESPERIMENTATZEA
ADISKIDETASUNA	IRAUNKORTASUNA



Kasu praktikoa: Save the Children

Gogoeta-prozesu osoaren barruan, garrantzitsutzat jotzen genuen adingabeengan eragina izan duen errealitate bat beste ikuspegi batetik bizi izan duten beste eragile batzuekin kontrastatu ahal izatea; eta **Charo Arranz** Euskadiko Save the Children-eko zuzendariaren laguntza izan genuen.

Charok COVID-19ak sortutako eta areagotutako errealitatea partekatu zuen haurrekin. Haurren eta nerabeen eskubideen urraketari buruzko datuez haratago, Charok elkarrizketa bat izan zuen Kontseiluko haurrekin.

Bere postutik, Charok Euskadiko Save the Children-en estrategia zuzentzen eta koordinatzen du hainbat jardun-arlotan: esku hartzea programetan (gizarte ekintza, nazioarteko lankidetzeta eta ekintza humanitarioa), komunikazioa, intzidentzia politikoa, sentsibilizazioa, erakunde harremanak eta aliantza korporatiboak.

Charok Kontseiluari jakinarazi zion Save the Children-en egunero lan egiten dutela egoera ahulenean dauden haurrekin batera; haur guztiek bizirik irautea, ikastea eta babestuta egotea ziurtatzeko.

Argi utzi zuen helburua haurren bizitzetan aldaketa esanguratsuak eta iraunkorrak lortzea dela, oraina hobeto bizitzeko eta etorkizun hobea egiteko; eta hori egiteko modurik onena haien ekarpenak kontuan hartzea dela. Charok eskaera garrantzitsu bat egin zien: **HITZ EGIN DEZATELA OZEN!!** Entzun ditzatela, haiek baitira benetan etorkizuna.

Charok Save the Children-en sortzaile den Eglantyne Jebb-ena den eta "bere egin duen" aipu batekin esan zuen agur.

*"EZER EZ DA EZINEZKOA, SAIAITZEARI UKO EGITEN
DIOGUN HORI IZAN EZIK"*

zer ikasi dute haurrek

- Daukatena baloratzen
- Garrantzizkoan zentratzen
- Osasuna baloratzen
- Familia baloratzen
- Egokitzen
- Aldatzeko motorra direla
- Oso egoera txarrean dauden haurrak daudela

zer nabarmentzen dugu guk

- Ez gara konturatzen zer daukagun
- Erresilientzia
- Familiaren garrantzia
- Haurrek bizi dituzten errealitate desberdinak ezagutzearen garrantzia
- Parte hartzeko testuinguruak sortu behar dira, protagonistak haiek izan daitezen





Desberdintasunak

Behin mapa emozionala eraikita, eta haren gaineko eskubideak eta eragin handienak identifikatuta, haurrek eragin horietan izan zituzten desberdintasunen inguruan hausnartzen eta horiek identifikatzen hasi ginen.

Kontseilua oso kontziente da **bere berdinaren taldeen artean egon diren desberdintasunez**; eta lehen pertsonan bizi izatetik edo ez izatetik haratago, gertaerak ez ezik, horien kausa asko identifikatzeko gaitasuna dute.

Desberdintasunen inguruan hausnartzeak haurren eskubideen urraketa handiagoak aztertzeko aukera ematen digu. Jabetzen dira desberdintasun askoren jatorria ez dela soilik COVID-19a, baina ondorioztatzen dute **pandemia-egoera horrek horiek areagotu egin dituela**.


Ezinbestekoa da azterketa hori egitea; izan ere, gomendioek eraginkortasun eta eragin handiagoa izango dute beren eskubideei dagokienez desberdintasunak sortu dituzten kausak konpontzera bideratuz gero.

Desberdintasunak teiltuaren beste erdian jarri ditugu, desoreka ikusi ahal izateko, eta "gure eskubidearen sabaia" gainera ez erortzea bermatu behar dugula ulertzeko.

desberdintasunak hezkuntzan

COVIDak hezkuntzarako eskubidean adingabeengan izan dituen desberdintasun handienak hauek dira, adingabeen arabera:

- **BEHARREZKO MATERIAL ETA BALIABIDEAK EDUKITZEA (eten digitala):** Teknologia eskura ez izateak (ekipamenduak, sareak, etab.) ezberdintasun handia eragin du eskola-jarduera normaltasunez garatu ahal izateko.
- **GAITASUN INTELEKTUALA:** Formatu birtualak ikasturtearen jarraipena zaildu die ulermen- eta jarraipen-gaitasunetan zailtasunak dituzten adingabe askori. Ez dago denboraren egokitzapenik gaitegia ulertzeko.
- **EGOERA PERTSONALA ETA FAMILIA-EGOERA:** Adingabe askok egoera sozio-familiar bereziak dituzte, eta egoera horiek zailtasunak sortu dituzte ikasturtea jarraitzeko. Zenbait alderdi zaintzea; esaterako, buruko osasuna, etxeetan erabilgarri dagoen eremua, zure senideekiko harremana, baldintza ekonomikoak eta abar.
- **ESKOLA-ANTOLAKETA:** Pandemia honek agerian utzi du ordutegiak, hautatutako ikasketa-metodoak, irakasleen funtzionamendua eta ikasleekiko komunikazioa ez direla egokiak.




desberdintasunak osasunean

COVIDak osasunerako eskubidean hurrengan izan dituen desberdintasun handienak hauek dira, adingabeen arabera:

- **OSASUN PUBLIKOA/PRIBATUA:** Pandemia-garaian, desberdintasun ekonomikoek osasun-arreta eskuratzea erraztu diete aseguru mediko pribatuak dituztenei; aldiz, gizarte-segurantzaz arreta jasotzeko itxaronaldiak esponentzialki areagotu dira.
- **FAMILIA-TIPOLOGIA:** Familiaren balioek eta ohiturek pandemia lasaiagoa edo estresagarriagoa sustatu dute.
- **ELIKADURA-OHITURAK:** Ikastetxeetako jangelarik ezak desberdintasun handia eragin du elikadura-ohituretan; izan ere, askorentzat, ikastetxeko bazkaria zen eguneko otordu bakarra.
- **BURUKO ARAZOAK GUTXIESTEA:** Haurrek jasaten dituzten buruko arazoak ez dira kontuan hartzen duten garrantzi-mailarekin; era neurrigabean ulertzeko joera dago.

"Familia askok ez dute baliabiderik izan egunean hiru otordu egin ahal izateko; horrek ez die gazteei laguntzen haien garapenean eta, ondorioz, ezin dira hazi behar duten indarrarekin".




desberdintasunak aisialdian

COVIDak aisialdirako eskubidean haurrengan izan dituen desberdintasun handienak hauek dira, adingabeen arabera:

- **LANDA-INGURUNEAREN ETA HIRI-INGURUNEAREN ARTEKO ALDEA:** Landa-inguruneko aisia- eta kultura-eskaintzak adingabe askori ez die aukerarik eman hirietan egin zitezkeen jarduerak egiteko, mugikortasunerako zailtasunagatik eta itxiera perimetralagatik; eta horrek guztiak sozializatzeko dituzten aukerak zailtzen ditu.
- **BALIABIDERIK EZA:** Baliabide eta bitarteko ekonomikorik eza dela eta, nerabeek lan egin behar izan dute; eta ez dute entretenitzeko gailurik eduki.
- **PANDEMIAREN FAMILIA-KUDEAKETA:** Familia guztiek ez dute ulertu eta ez dute baloratu COVID-19aren eragina modu berean; eta, horren ondorioz, familia batzuek beren beldurrak transferitu dizkiete haurrei, eta eragotzi egin dute haurrak kalera ateratzea eta berdinkideekin harremanak izatea.

"Familiak birusaren inguruan duen pertzepzioak etxetik ateratzeko beldurra sor dezake; beraz, ez du sozializatzen. Edo birusa izan duen senide bat izateak ere eragina izan dezake..."





Gomendioak

Eta lan-jardunaldien amaieran, gomendio batzuk identifikatu genituen eskubide bakoitzeko; etorkizuneko arau eta politikei buruzko **erabakiak hartzeko ardatz eta gidari** izan daitezzen, antzeko egoerarik balego.

Gure ustez, gomendioak, haur guztien eskubidea bermatzeaz gain, adingabeen **desberdintasunak hausten dituzten neurriak** zehaztera bideratuta daude; izan ere, neurri horiek, askotan, familia-ingurunean dute jatorria: baliabide ekonomikoak, gizarte- eta familia-egoera...

Kontseiluarentzat, gomendioek garrantzi handia dute; ez bakarrik beren eskubideak bermatzeko, baizik eta beren ustez haiek **esateko eta iritzia emateko asko dutelako**, eta beren ekarpenek beren esperientzia eta ikuspegia dituztelako oinarri.

Haiek leku bat eskatzen dute beren hiri eta herrialdeetako bizitza politiko, sozial eta kulturalaren gogoetetan eta erabaki-hartzean.

Gure ustez, gomendioek argi gisa balio behar dute; eta helduen eztabaidetan haurren, nerabeen eta gazteen begirada eta ikuspegia txertatu behar dute, etorkizunerako hain beharrezkoa baita.

Etorkizuna gaur delako, eta etorkizuna haiek direlako.

gomendioak

hezkuntzarako eskubidea

Hauek dira adingabeen gomendioak, COVIDak hezkuntzarako eskubidean izan dituen desberdintasunen aurrean:

- **JARRAIPEN- ETA KOMUNIKAZIO-PLANAK** GARATZEA, ESKOLA-ERREFORTZUA (BULTZADA AKADEMIKORA BIDERATUTAKO PRESTAKUNTZA-TAILERRAK EZARRIZ) ETA IKASLEEN **BEHARRAK HAUTEMATEA** AZPIMARRATUZ.
- BEHAR DUTEN IKASLEEI **MATERIALA** (TEKNOLOGIKOA ETA ANALOGIKOA) **EMATEA**, BAI ETA IKASTEKO BALDINTZA EGOKIAK BERMATZEN DITUZTEN ETXEBIZITZAREN OINARRIZKO BEHARRAK ERE.
- IKASLEEKIN BATERA DISEINU BAT EGITEA, **OSASUN- ETA SEGURTASUN-NEURRI** KOHERENTEAK, ERAGINKORRAK ETA GUZTIEK PARTEKATUAK BERMATZEKO.
- HEZKUNTZA-EREDUAK, COVID-A BEZALAKO EGOERAN, ERAKUTSI DITUEN HUTSUNEI BURUZKO HAUSNARKETA-EZTABAIDA ABIARAZTEA, IKASLEEN **ERREALITATEARI ETA BENETAKO INTERESARI EGOKITUTAKO EREDU** BAT ERAIKITZEKO.



oharrak

- **AKADEMIA PUBLIKOAK** (ESKOLA-ERREFORTZUA).
- **GOBERNUAK**, EDO IKASTETXEAK, **MATERIALA**, WIFIA, ORDENAGAILUAK, GUNEAK, BALIABIDEAK ETA OINARRIZKO BEHARRAK (ARGIA, URA, GASA, JANARIA...) FINANTZATZEKO LAGUNTZAK **EMATEA** (BEHAR DUTEN IKASLEEI).
- **ORIENTATZAILE AKADEMIKOAK ETA PSIKOLOGIKOAK** IKASTETXE BAKOITZEAN. BAITA IKASLE BAKOITZAREN EGOERA ETA BEHARRAK EZAGUTZEAZ ARDURATUKO DIREN PERTSONAK ERE.
- **HOBETO PENTSATUTAKO ETA ANTOLATUTAKO SEGURTASUN-NEURRIAK** (COVID NEURRIAK EDO IKASTETXEKO ERABAKIAK EZTABAIDATZEKO IKASLE-KONTSEILUAK).
- HEZKUNTZA-SISTEMAN ALDAKETAK EGITEA:
 - AIRE ZABALEKO JARDUERA GEHIAGO.
 - JARDUERA SOZIOKULTURAL GEHIAGO.
 - IZATEARI ETA PENTSATZEARI GARRANTZI HANDIAGOA EMATEA. BURUZ IKASTEAK BAKARRIK, KANPORA.
 - MATERIAL ETA JARDUERA MOTA GEHIAGO.
 - AUTONOMIA HANDIAGOA IKASLEARI.



gomendioak

osasunerako eskubidea

Hauek dira adingabeen gomendioak, COVIDak osasunerako eskubidean izan dituen desberdintasunen aurrean:

- ADINGABEENTZAKO **BURUKO OSASUNeko SARE PROFESIONAL ETA ESPEZIALIZATUA** BERMATZEA, ZERBITZUAK MODU NORMALIZATUAN GUZTIOK SENTSIBILIZATZEKO ETA GUZTIONGANA HURBILTZEKO KANPAINEKIN BATERA.
- PROGRAMA ESPEZIFIKOAK (HITZALDIK, BOLUNTARIOTZAKO PROGRAMAK...), **KIROLA, BIZITZA OSASUNGARRIA** (ELIKADURA OREKATU ETA OSASUNGARRIAREN ONDORIOAK) **ETA** ADINGABEEN ARTEAN **SAREEN ERABILERA** SUSTATZEKO.
- **ZERBITZUAK SENTSIBILIZATZEA, SUSTATZEA ETA ZABALTZEA** (ARRETA-TELEFONOAK, PROFILAK SAREETAN...) ADINGABEEK BEREN ESKUBIDEAK URRATZEN DIRENEAN (TRATU TXARRAK...) HORIETARA JO AHAL IZATEKO.



oharrak

- **BURUKO OSASUNEAN ESPAZIALIZATUTAKO JENDE-SAREA**
(IKASTETXEAK, LANA...)
- **HEZKUNTZA HITZALDIAK EMATEA ELIKADURA OSASUNGARRIAREN INGURUAN KONTZIENTZIATZEKO.**
- **KIROLEAN ETA JARDUERA FISIKOETAN ESPEZIALIZATUTAKO PERTSONEN BOLUNTARIOTZA, GAZTEAK ETA HAIEN FAMILIAK KIROLA EGITERA ANIMATZEKO.**
- **BURUKO OSASUNAREN LAGUNTZA TERAPEUTIKOA NORMALIZATZEA ETA IRAGARTZEA, ETA GOBERNUAK SAIOAK EMATEA.**
- **FAMILIA GUZTIEI JANARI OSASUNGARRIA EMATEA.**
- **PUBLIZITATE-KANPAINAK, TRATU TXARREN EDO EDOZEIN ARAZOREN KASUETARAKO TELEFONO-ZENBAKIAK IRAGARRIZ.**
- **ESPEZIALISTA BATEK GAZTEAK KONTZIENTZIATZEA INTERNETEN ERABILERARI BURUZ, ETA PANTAIEN ERABILERA MURRIZTEA.**



gomendioak

aisialdirako eskubidea

Hauek dira adingabeen gomendioak, COVIDak aisialdirako eskubidean izan dituen desberdintasunen aurrean:

- **LANDA-EREMUETAN GIZARTE- ETA KULTURA-JARDUERA SUSTATZEA** ETA EZ GELDIARAZTEA, KONTUAN HARTUTA ADINGABEEK AISIALDIAN DUTEN **SOZIALIZAZIOAREN BEHARRA** NEURRIAK HARTZERAKOAN, ETA TIPOLOGIAN (ONLINE, AURREZ AURRE...) ETA GUNEETAN **SALBUESPENEZKO NEURRIAK** ERRAZTUZ.
- **GUNE ETA KOMUN GEHIAGO SUSTATZEA ETA SORTZEA**, HOBBY BERRIETARA BIDERATUTA.
- **FAMILIEI LAGUNTZEKO KANPAINAK** DISEINATZEA TURISMO- ETA KULTURA-JARDUERAK GARATU AHAL IZATEKO, FAMILIAREKIN BATERATU ETA FAMILIAN GOZATZEA AHALBIDETZEKO, BAI ETA EKONOMIA AKTIBATZEKO ERE.



oharrak

- GIZARTE- ETA KULTURA-EKITALDIAK **EZ GELDIARAZTEA: AFORO TXIKIAGOA** EDUKI DEZATELA, **BAINA GEHIAGO EGON DAITEZELA** PERTSONAK BANATZEKO. ERAGIN HANDIENA ZEIN LEKUTAN DAGOEN **AZTERTZEA** ETA EMAITZEN ARABERAKO BITARTEKOAK ERABILTZEA; ETA **EKITALDI ERDIAK ONLINE EGITEA ETA ERDIAK AURREZ AURRE.**
- ISOLATUTA EGONEZ GERO **KOMUNIKATU** EZIN DIREN FAMILIA KONFINATUENTZAKO **LAGUNTZAK** ESKAINTZEA.
- FAMILIEI BIDAIATZEN LAGUNTZEKO ETA TURISMOA ETA EKONOMIA SUSPERTZEKO **“LAGUNTZA-TXARTELAK” SORTZEA.**
- HAINBAT HOBBIEREN INGURUAN **GUNE GEHIAGO SORTZEA.**





Ondorioak

Arartekoaren Partaidetza Kontseiluaren lan-jardunaldiak balio izan du COVID-19aren pandemiaren errealitatera beratu osatzen duten haurren ikuspegi fresko eta baliotsutik hurbiltzeko.

Gogoeta eta eraikuntza bateratuen gune bat; gogoeta eta eraikuntza horiek adingabeen artean eskubideak eta haien desberdintasunak diagnostikatzeko prozesu bat egitea ahalbidetu dute. Haurren eta nerabeen eskubideak zuzendu eta bermatzeko zenbait gomendio ematen ditu.

Nabarmentzekoa da **aztertzeko, hausnartzeko, aniztasunetik baloratzeko eta ikasteko duten gaitasuna, bai eta hobetzeko konponbideak emateko duten gaitasuna ere**, haur gisa ingurune hurbilenarekin duten konpromisotik abiatuta.

Kontseilua bezalako guneak beharrezkoak dira gobernantza berriko garai hauetan, ez baitu inolako zentzurik adingabeengan eragina duten arauak eta neurriak ezartzea, **haiekin, haientzat eta haiengandik** egiten ez badugu.

Zorionak neska-mutilok, eta **mila esker mundu hobea eraikitzeagatik!**







TIME FOR CHANGE